

Txostena

Informe

EAEko Udal Entitateen Kontuak

Cuentas de las Entidades Locales de la CAPV

2013





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA/INDICE

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK	5
AZTERTUTAKO RATIOAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. ONDORIOAK.....	10
II.1 UDALEN KONTUAK	10
II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK	13
III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK	15
III.1 UDAL ADIERAZLEAK 13/12/31-N	15
III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK 2013/12/31-N.....	29
ALEGAZIOAK	35
ABREVIATURAS Y DEFINICIONES	39
RATIOS ANALIZADOS.....	39
I. INTRODUCCIÓN.....	41
II. CONCLUSIONES	44
II.1 CUENTAS MUNICIPALES	44
II.2 CUENTAS SUPRAMUNICIPALES	47
III. RATIOS E INDICADORES.....	50
III.1 INDICADORES MUNICIPALES A 31/12/2013.....	50
III.2 INDICADORES DE LAS ENTIDADES SUPRAMUNICIPALES A 31/12/2013 ..	64



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia
Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LIQUIDACIONES AGREGADAS

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

ANEXOS 71

- A.1 ENTIDADES CON CUENTAS AUDITADAS 71
- A.2 GASTOS DE PERSONAL..... 72
- A.3 DEFICIENCIAS DEL ANÁLISIS DE LAS CUENTAS GENERALES..... 73

INFORMACIÓN ECONÓMICO FINANCIERA

<http://www.tvcp.eu/informes.asp>

- 1 OOAA, ENTIDADES PÚBLICAS, SOCIEDADES PÚBLICAS Y FUNDACIONES
- 2 RESUMEN DE LAS LIQUIDACIONES PRESUPUESTARIAS Y PLANTILLA
- 3 RATIOS FINANCIEROS
- 4 EVOLUCIÓN PRINCIPALES MAGNITUDES

ALEGACIONES 85

Vitoria-Gasteiz, 2016ko martxoak 17a

Vitoria-Gasteiz, 17 de marzo de 2016



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK ETA DEFINIZIOAK

10/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 2koa, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
21/2003 FA	21/2003 Foru Araua, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
3/2004 FA	3/2004 Foru Araua, otsailaren 9koa, Arabako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
DG	Diruzaintza geldikina.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
GODG	Gastu orokorretarako diruzaintza geldikina.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LH	Lurralde historikoa
TAOL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
TOALTB	2/2004 Legegintzako Errege-Dekretua, martxoaren 5koa, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bategina onesten duena.

AZTERTUTAKO RATIOAK

Berehalako likidezia	Funts likidoak / Ordaintzeke dauden obligazioak.
Likidezia	Funts likidoak / Hartzekodunak epe laburrera.
Epe laburreko kaudimena	Funts likidoak + kobratzeko dauden eskubideak / ordaintzeko dauden obligazioak.
Zorra amortizatzeko gutxieneko epea	Erabilitako zorra / Emaidza arrunta.
Diru-sarrera errepikarien bilakaera	$[N \text{ ekitaldiaren ustiapen sarrerak} + N \text{ ekitaldiaren finantza sarrerak} / N-1 \text{ ekitaldiaren ustiapen sarrerak} + N-1 \text{ ekitaldiaren finantza sarrerak}] -1.$
Egiturazko gastuen bilakaera	$[N \text{ ekitaldiaren ustiapen gastuak} + N \text{ ekitaldiaren finantza gastuak} / N-1 \text{ ekitaldiaren ustiapen gastuak} + N-1 \text{ ekitaldiaren finantza gastuak}] -1.$
Kobrantzak gauzatzea	Diru-bilketa garbia / Aitortutako eskubide garbiak
Kobrantzarako batez besteko aldia	Kobratzeko dauden eskubideak (1etik 3rako kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.) *365.
Autonomia fiskala	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.) / Guztira aitortutako eskubide garbiak.
Transf. eta diru-laguntza arruntekiko mendekotasuna.	Transferentzia eta diru-lag. arruntak / Sarrera arruntak (1etik 5erako kap.) * 100.
Ordainketak gauzatzea	Ordainketa likidoak / Aitortutako obligazio garbiak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Ordainketarako batez besteko aldia	Ordaintzeko dauden obligazioak (2. eta 6. kap.) / Aitortutako obligazio garbiak (2. eta 6. kap.) * 365.
Langile gastuen indizea	Langileria gastuak / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Inbertsio ahalegina	Aitortutako obligazio garbiak (6. eta 7. kap.) / Aitortutako obligazio garbiak.
Ekitaldiko finantza zama	Aitortutako obligazio garbiak (6. eta 7. kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki Gordinaren indizea	Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.) - Aitortutako obligazio garbiak (1etik 4rako kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Aurrezki garbiaren indizea	Aurrezki gordina - finantza zama (gastuen 3. eta 9. kap.) / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 5erako kap.).
Sarrera arruntek eragindako geldikina	GODG – Aplikatzeko dauden ordainketak / Aitortutako eskubide garbiak (1etik 3rako kap.).
Biztanleko superabita edo defizita	Doitutako aurrekontu emaitza / biztanle kopurua.
Aurrekontuaren ekarpena DGari	Doitutako aurrekontuaren emaitza /GODG.
Zalantzazko kobragarritasuna duten zordunen indizea	Zalantzazko kobragar. saldoak / kobratzeko dauden zordunak * 100.
Biztanleko inbertsioa	Obligazio aitortuak, gastuen 6. eta 7. kap. / Biztanle kopurua.
Jardueraren sarrerak	Eskubide aitortuak, sarrerren 1etik 3rako kapituluak eta sarrerren 5. kapitulua Partzuergoentzat.
Ekitaldi itxietan kobrantzak gauzatzea	Kobrantzak / Eskubideen hasierako saldoa (+ - aldaktak eta baliogabetzeak).
Ekitaldi itxietan ordainketak gauzatzea	Ordainketak / Obligazioen hasierako saldoa (+ - aldaktak eta baliogabetzeak).



I. SARRERA

Epaitegi honek hezurmamitu duen Lanerako Programa betez, EAEko udalen eta udalaz gaindiko entitateen 2013ko Kontu Orokorrak aztertu dira, ikuspegi formala eta kualitatiboa oinarri hartuta.

Toki Entitateentzat aurrekontu gaietan estatuko erregulazioa Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak eta Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen Testu Bateginak osatzen dute.

EAEren esparruan Lurrealde Historiko bakoitzaren Batzar Nagusiek ebatzitako indarreko arautegia 3/2004 FA, 10/2003 FA eta 21/2003 FA da. Foru Dekretuen bidez garatu dira aurrekontuei buruzko foru arauak lurralde historiko bakoitzean eta horietan toki entitateen aurrekontuaren egitura eta kontabilitate publikoaren plan orokorra jaso dira. Hiru Lurrealdeetako udalen aurrekontu likidazioari eta Kontu Orokorri dagokion dokumentazioa, Aurrekontuko Foru Arau bakoitzaren 47 eta 62 artikuluek arautzen dute.

Aurreko urteetan egin dugun legez, txosten-diagnostiko hau EAEEn 2013ko ekitaldian zeuden 251 udal administrazioei (ez ditu besarkatzen erakunde autonomoak, sozietate publikoak, entitate publikoak eta fundazioak) eta udalaz gaindiko 64 entitateei soil-soilik dagokie. Hona hemen horien xehapena:

- 20 partzuergo
- 33 mankomunitate
- 6 kuadrilla
- 5 partzoneria

EAEren udal multzoaren kontuak eta Lurrealde Historikoen araberrako banaketa, eta udalaz gaindiko entitate multzoaren kontuak eta emandako zerbitzu motaren araberrako banaketa likidazioak txertatzen eskuratu dira, ia gehienak fiskalizatu gabeak, 249 udalek (% 99,20) eta udalaz gaindiko 58 entitatek iritsarazi dizkigutenak (%90,63).

Ikuskatutako kontuak aurkeztu dituzten entitateak 21 udal eta udalaz gaindiko 11 entitate dira eta HKEEk, gainera, 9 udal eta udalaz gaindiko entitate 1 fiskalizatu ditu (ikus A.1).

Aztertutako udal eta udalaz gaindiko entitateek antolamenduan 105 erakunde autonomo, 125 udal sozietate publiko eta 4 enpresa-entitate publiko besarkatzen dituzte, ondortik erakutsiko dugun laburpenaren araberr. Xehapena ondoko lotunean dago jasoa:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

	ENTITATE KOPURUA		
	ERAKUNDE AUTONOMOAK	SOZIJATE PUBLIKOAK	ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK
Udaletakoak:			
ARABA	7	19	-
BIZKAIA	50	44	2
GIPUZKOA	46	52	2
Udalaz gairdikoak:			
Partzuergoak	-	4	-
Mankomunitateak	2	6	-
Kuadrillak	-	-	-
Partzoneriak	-	-	-
EAE GUZTIRA	105	125	4

Gainera, 20 fundaziotan parte hartzea baieztatu dute, 19 udalek eta udalaz gairdiko entitate batek.

Txosten honetan aurkeztu ditugun ondorioetarako, 2.182.876ko biztanleria hartu da abiaburutzat, eskatutako informazioa igorri duten Euskal Autonomia Erkidegoko 249 udaletan 2013ko urtarrilaren 1ean zeuden biztanleak, alegia.

Txosten honetako ondorioak eskuratzeko finkatutako biztanleria mailak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOP.	BIZT. KOP. 13/1/1
> 50.000	6	1.018.696
20.001 - 50.000	12	389.135
10.001 - 20.000	24	353.442
5.001 - 10.000	27	192.182
1.001 - 5.000	81	183.286
< 1.001	99	46.135
EAE GUZTIRA	249	2.182.876
ARABA	51	321.417
BIZKAIA	111	1.147.760
GIPUZKOA	87	713.699

Zerbitzua ematen zaion biztanleria, zerbitzu motaren arabera, honakoa da kontuak prozesatu diren 58 entitateetan:

JARDUERA	ENTITATE KOP.	ARTATURIKO BIZTANLERIA
1. Ura eta saneamendua	12	1.867.950
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	9	375.336
3. Hiriko hondakin solidoak	9	1.462.698
4. Gizarte Ongizatea	9	254.687
5. Arabako Kuadrillak	6	80.031
6. Sustapena eta irakaskuntza, euskara eta lanerako prestak.....	5	217.874
7. Partzoneriak eta baso ustiapena	5	62.985
8. Suteak itzaltzea	2	60.752
9. Garraioak	1	760.066

Lana egiteko honako prozedura hauek erabili ditugu:

- 2013ko ekitaldiko Kontu Orokorren analisia. Azterlan hau oinarri izan da toki entitateek, informatzeko betebeharrari dagokionez, legedia zein neurritan betetzen duten zehazteko.
- Udal eta udalaz gaindiko entitate guztien kontu orokorren atal diren egoera balantzeen, galera eta irabazien kontuen eta aurrekontuaren likidazioaren azterketa berariazkoa; ezargarria zaien arautegian eskatutako informazio osoa barne hartzen dutela eta agiri guztiak elkarren artean koherenteak direla egiaztatu da.
- Udal eta udalaz gaindiko entitateen egoera balantzeen, galera eta irabazien kontuen eta aurrekontuen likidazioen azterketa berariazkoa, ekonomia-finantza izaerako adierazleak eskuratzeko.

Udalek eta udalaz gaindiko entitateek igorritako agirien edukia aztertzean hiru akats mota bereizi ditugu:

- Aurrekontu, aurrekontuen likidazio eta kontu orokorra onesteko epeetan eragina dutenak.
- Kontu orokorra eragiten dutenak, bai eduki formalari dagokionez, bai informazioaren eduki kualitatiboari dagokionez ere.
- Aurreko ekitaldietako Gastu orokorretarako diruzaintzako geldikin negatiboen finantzaketari erreferentzia egiten dietenak.

Erabilitako moneta unitateari dagokionez, txostenaren datu ekonomikoak milako euroetan daude emanak eta hamartarrak ez erakusteko biribildu dira; datuek beti balio zehatz bakoitzaren biribiltzea erakusten dute eta ez biribildutako datuen batuketa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. ONDORIOAK

II.1 UDALEN KONTUAK

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauek agintzen dute Toki Entitateek HKEEri Kontu Orokorra aurkeztuko diotela, beren berariazko arautegiak agintzen duen terminoetan behar bezala onetsia; berebat, HKEEren sorrera legearen 9.5 artikulua agintzen du nahitaezkoa dela Epaitegi honi Toki Entitateen Aurrekontuen likidazioari dagokion dokumentazioa igortzea, egin edo onesten denetik aurrera hilabeteko epean. Gaintza eta Ondarruko udalek ez dute betebeharrak hori bete (ikus A.3.1).

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEren 249 udalek igorritako datuetatik eskuratu dira. Datu horien arabera, EAEko Udalen % 99,20ak aitortzen dizkio kontuak Epaitegi honi.

A.3.1 eranskinean banaka zehazten dira aztertutako 249 udaletan aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 15,26 egiten duten 38 udaletan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 4, Arabako Lurralde Historikoan daude; 20, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 14, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- 139 udalek aurrekontuak 2013ko lehenengo seihilekoan onetsi zituzten eta 9k, berriz, ekitaldiaren bigarren seihilekoan.

Aurrekontua dagokion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun 249 udaletatik % 31,73k bakarrik onetsi ditu 2013ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespenaldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2013/01/1 baino lehenago.....	79	% 31,73
2013ko 1. hiruhilekoa.....	100	% 40,16
2013ko 2. hiruhilekoa.....	39	% 15,66
2013ko 2. seihilekoa.....	9	% 3,61
Luzatutako aurrekontua.....	22	% 8,84

- 28 udaletan aurrekontuaren likidazioak indarreko arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dira.

Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen lehendakariak onesteko epemuga modura. 249 udalen % 88,76k 2013ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2013ko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du; gainerako % 22,45ak, berriz, aurrekontuari buruzko arautegiak finkatutako epea urratu du.



Hona hemen aurrekontuen likidazioaren onespén aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2014/01/1 baino lehenago.....	221	% 88,76
2014/04/1 eta 2014/07/31 bitartean.....	23	% 9,24
2014/08/1 eta 2014/12/31 bitartean.....	3	% 1,20
2015/01/1 baino beranduago.....	2	% 0,80

- 63 udalek Kontu Orokorra arautegiak agindutako data baino beranduago onetsi dute eta 12 udaletan ez dago jasota Kontu Orokorra onetsi denik.

Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 ezartzen du Erakundearen Osokoak onesteko epemuga modura. 249 udalen % 69,88k Kontu Orokorra arautegiak agintzen duen epean onetsi du. Hona hemen Kontu Orokorra onesteko aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	UDAL KOPURUA	%
2014/08/1 baino lehenago.....	174	% 69,88
2014/08/1 eta 2014/12/31 bitartean.....	51	% 20,48
2015/01/1 baino beranduago.....	12	% 4,82
Ez dago jasota onetsi denik.....	12	% 4,82

Kontu Orokorraren eduki formala

- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

	UDAL KOPURUA
HUTSAK	2013
Ez da finantzaketa taula barne hartu	8
Ez da udal zorrari buruzko informaziorik jaso	6
Ez da oroitidazkia barne hartu.....	35

Kontu Orokorra, Egoera Balantzeak, Galera-Irabazien Kontuak, Memoriak eta aurrekontuaren likidazioak osatzen dute eta udalak egin duen kudeaketa-lana erakusten du, ekonomia, finantza, ondare eta aurrekontuari dagozkion alderdietan. Kontu Orokorra mamitu eta onartzeko obligazioa hiru Lurralde Historikoen Foru Arauetan dago xedatua eta hala ez egiteak erakunde hauen kudeaketan buru egin behar duen gardentasuna eragiten du.



Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Udaletan ezarritako ondare kontabilitateak, kasu ugaritan, oraindik ez du eduki zuzena. Honela, bada, 67 udalek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuko amortizazioak txertatzen; 3 udalek ez dute kaudimen-gabeziatarako zuzkidura erakusten egoera balantzeko zordunen idazpuruan, nahiz diruzaintzaren geldikinaren kalkuluan barne hartzen dituzten. Balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak barne hartzen ez dituzten 67 udaletatik 58, 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei dagozkie.
- Gainera, beste 5 udal daude, 24 hilabetetik gorako antzintasuneko kobratzeko zorrak izanik, kobragarritasun azterketarik ez dutenak eta Diruzaintza geldikinetik inongo kopururik deduzitu ez dutenak.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

UDAL KOPURUA	
2013	
AURREKONTUKO AKATS KUALITATIBOAK:	
Oker kalkulaturako aurrekontu emaitza.....	1
Ez dira kalkulatu ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak	2
Oker kalkulaturako diruzaintza geldikina	10
Ez da kalkulatu Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako	4
Diruzaintza Kontuan deskoadratzeak daude.....	4
ONDAREKO AKATS KUALITATIBOAK	
Zorraren eranskina ez dator bat balantzearekin	42
Balantzean kaudimen-gabeziatarako zuzk. diruz. geldikinarena baino txikiagoa	7

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

- 11/12/31n gastu orokorretarako geldikin negatiboa zuten 52 udaletatik 27 udalek ez dute 13/12/31n hori finantzatu, Lurralde Historiko bakoitzaren Toki Erakundeen Aurrekontuko Foru Arautegiaren 49.4 artikulua urratuz.
- 2011ko ekitaldiaren geldikin negatiboak finantzatu dituzten 25 udalek honako modu honetan egin dute:
 - 12 udalek aurrekontuaren gastuko kontu-sailak murriztuta.
 - 6 udalek 2012an edo 2013an geldikin positiboak eskuratuta, aurreko saldo negatiboa berdindu dutenak.
 - 6 udaletan epe luzerako maileguak kontratatuta.
 - 1 udaletan, bestelako finantzaketa moldeak baliatuta.

II.2 UDALAZ GAINDIKO KONTUAK

Kuartango Uren Partzuergoa, Iruña Okako Uren Partzuergoa, Haranako Uren Partzuergoa, Debade Udal Euskaltegien Mankomunitatea eta Uli Mankomunitatea entitateek ez dituzte 2013ko ekitaldiari dagozkion kontuak igorri eta Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63.5 artikulua urratu dute. Gainera, ezinezkoa izan da Ekialdeko Lautadako Uren Partzuergoaren kontuak barne hartzea (erakunde honek ez du jarduera abiarazi), indarreko legeriak agintzen duenarekiko bat datozen egiturak ez izateagatik.

Ondotik azalduko ditugun ondorioak EAEn udalaz gaindiko 58 entitatek igorritako datuetatik eskuratu ditugu.

A.3.2 eranskinean zehazten dira udalaz gaindiko entitate bakoitzean aurkitutako akatsak. Azpimarratu behar dugu udalerrien % 12,07 egiten duten 7 udalaz gaindiko entitatetan ez dela arestian aipatutako eranskinetan zehaztutako hutsetatik batere azaleratu; horietatik 3 Arabako Lurralde Historikoan daude; 3, Bizkaiko Lurralde Historikoan eta 1, Gipuzkoako Lurralde Historikoan.

Onespen epeak

- 23 entitatetan aurrekontuak 2013ko lehenengo seihilekoan onartu zituzten, eta 8 entitatetan, berriz, bigarren seihilekoan. Aurrekontua dagozkion ekitaldia hasi aurretik onetsi behar da, Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 15.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Aztertu ditugun EAEn udalaz gaindiko 58 entitateetatik % 39,66k bakarrik onetsi ditu 2013ko aurrekontuak ekitaldia hasi aurretik. Hona hemen aurrekontuen onespen aldien arabera sailkatutako udal kopurua:

AURREKONTUEN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2013/08/1 baino lehenago.....	23	% 39,66
2013ko 1. hiruhilekoa.....	14	% 24,14
2013ko 2. hiruhilekoa.....	9	% 15,52
2013ko 2. seihilekoa.....	8	% 13,79
Luzatutako aurrekontua.....	4	% 6,89

- 11 erakundek aurrekontu-likidazioa aurrekontu-arautegiak agintzen duen data baino beranduago onetsi zuten. Lurralde historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 49. artikulua hurrengo ekitaldiko martxoaren 31 ezartzen du Erakundearen lehendakariak onesteko epemuga modura. Udalaz gaindiko 58 entitateen % 81,04k 2013ko ekitaldiaren aurrekontu likidazioa 2013ko apirilaren 1a baino lehenago onetsi du. Ondotik, udalaz gaindiko entitateek aurrekontuaren likidazioa zein alditan onetsi duten erakutsiko dugu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LIKIDAZIOAREN ONESPENA	ENTITATE KOPURUA	%
2014/04/1 baino lehenago.....	47	% 81,04
2014/04/1 eta 2014/07/31 bitartean.....	9	% 15,52
2014/08/1 eta 2014/12/31 bitartean.....	1	% 1,72
2015/01/1 baino beranduago	1	% 1,72

- 16 erakundetan Kontu Orokorra aurrekontu-arauegiak agindutako data baino beranduago onetsi zen eta 9 erakundetan ez dago erasota onartu dutenik. Lurralde Historiko bakoitzaren Aurrekontuko Foru Arauen 63. artikulua hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 ezartzen du Erakundearen Osokoak onesteko epemuga modura. Udalaz gaindiko 33 entitatek baizik ez dute Kontu Orokorra indarreko aurrekontu-arauegiak emandako epean onetsi; horiek udal guztien % 56,90 egiten dute. Onespenaldien arabera sailkatutako erakunde kopurua honakoa da:

KONTU OROKORRAREN ONESPENA	ERAKUNDE KOPURUA	%
2014/08/1 baino lehenago.....	33	% 56,90
2014/08/1 eta 2014/12/31 bitartean.....	12	% 20,69
2015/01/1 baino beranduago	4	% 6,89
Ez dago jaso onartu denik.....	9	% 15,52

Kontu Orokorraren eduki formala

- Hiru erakundek ez dute ez balantzerik, ez emaitzen konturik aurkezten; 5ek ez dute finantzaketa taularik barne hartzen eta 12k ez dute oroitidazkirik jasotzen.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:

HUTSAK	ENTITATE KOPURUA 2013
Ez da zorrari buruzko informaziorik jaso	9
Ez da Diruzaintza kontua jaso.....	3

Kontu Orokorraren eduki kualitatiboa

- Honela, bada, hamalau entitatek ez dituzte balantzean edo emaitzen kontuan ibilgetuaren amortizazioak txertatzen.
- Udalaz gaindiko entitate batek, 24 hilabetetik gorako antzintasuneko zorrak dituenak, ez du kobragarritasunaren azterlanik.
- Hona hemen kontuen edukian beste zenbait akats:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

		ENTITATE KOPURUA
		2013
AURREKONTUKO AKATS KUALITATIBOAK:		
Diruz. Geldik. zalantzazko kobrantzarako zuzkidura kobragar. analisia baino baxuagoa		1
Ez dira kalkulatzen ekitaldiko aurrekontuaren emaitzen zuzenketak		6
Ez da kalkulatzen Geldikina atxikitako finantzaketa duten gastuetarako.....		6
Diruzaintza Kontuan deskoadreak daude		1
ONDAREKO AKATS KUALITATIBOAK		
Zorren eranskina ez dator bat balantzearekin		1
Zalantzazko kobragarritasuneko zuzkidura, balantzean jaso gabea.....		2

Gastu orokor negatiboetarako Diruzaintza Geldikinaren finantzaketa

11/12/31n gastu orokorretarako geldikin negatiboak zituzten udalaz gaindiko 2 entitateetatik 1ek ez du finantzatu 13/12/31n, lurralde historiko bakoitzeko Toki Entitateen Aurrekontuko Foru Arauaren 49.4 art. urratuz.

III. RATIOAK ETA ADIERAZLEAK

III.1 UDAL ADIERAZLEAK 2013/12/31N

Udal adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 249 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

III.1.1 FINANTZA ADIERZLEAK

Berehalako likidezia eta epe laburrera likidezia eta kaudimena

Ratio hauek erakusten dute udalek kitatzeko dituzten ordainketei aurre egiteko duten gaitasuna. Biztanleria geruzaren arabera batez besteko baloreak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOPURUA	BEREHALAKO LIKIDEZIA	LIKIDEZIA	KAUDIMENA EPE LABUR.
ARABA				
>50.000	1	% 30,85	% 25,03	% 116,34
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 302,39	% 264,43	% 419,70
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 179,54	% 148,75	% 296,95
<1.001	29	% 242,72	% 218,17	% 331,13
ARABA BATEZ BESTE	51	% 69,32	% 56,81	% 159,90
BIZKAIA				
>50.000	3	% 177,59	% 98,10	% 219,97
20.001-50.000	8	% 159,38	% 139,58	% 260,27
10.001-20.000	9	% 239,91	% 200,17	% 326,61
5.001-10.000	12	% 297,49	% 247,18	% 380,24
1.001-5.000	40	% 149,43	% 128,52	% 310,04
<1.001	39	% 150,79	% 115,60	% 235,60
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	% 183,84	% 133,35	% 262,69
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 52,17	% 38,20	% 167,09
20.001-50.000	4	% 97,86	% 38,81	% 207,15
10.001-20.000	13	% 191,97	% 153,32	% 306,15
5.001-10.000	15	% 106,61	% 89,60	% 227,00
1.001-5.000	22	% 132,90	% 209,09	% 227,42
<1.001	31	% 143,94	% 120,35	% 272,26
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 111,14	% 83,91	% 225,01
EAE				
>50.000	6	% 94,49	% 55,20	% 169,23
20.001-50.000	12	% 141,56	% 107,19	% 244,88
10.001-20.000	24	% 217,47	% 177,52	% 323,45
5.001-10.000	27	% 186,22	% 155,76	% 290,91
1.001-5.000	81	% 153,21	% 143,28	% 290,72
<1.001	99	% 175,20	% 143,62	% 272,93
EAE BATEZ BESTE	249	% 133,99	% 98,70	% 226,53



Zorpetzea

Udalen arteko datuak berdintzearren, udalerriek 13/12/31n baliatutako zorra soilik hartu da gogoan. Hona hemen biztanleko, biztanleria geruzako, erabilitako zorraren batez besteko kopuruak:

GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO ZORPETZEA	ZORPETZEA SARRERA ARR.arab.	ZORRA AMORTIZ. GUTXIENeko EPEA(*)
ARABA				
>50.000	1	470	% 35,72	4
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	51	% 3,97	-
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	392	% 33,62	2
<1.001	29	196	% 17,63	1
ARABA BATEZ BESTE	51	412	% 32,04	3
BIZKAIA				
>50.000	3	74	% 6,15	1
20.001-50.000	8	140	% 13,52	2
10.001-20.000	9	171	% 16,90	2
5.001-10.000	12	220	% 19,74	1
1.001-5.000	40	296	% 24,94	2
<1.001	39	265	% 19,64	1
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	134	% 11,89	1
GIPUZKOA				
>50.000	2	573	% 45,20	4
20.001-50.000	4	377	% 33,14	2
10.001-20.000	13	296	% 24,86	1
5.001-10.000	15	362	% 30,51	2
1.001-5.000	22	457	% 41,16	2
<1.001	31	467	% 31,91	1
GIPUZKOA BATEZ B.	87	428	% 35,45	2
EAE				
>50.000	6	289	% 23,26	2
20.001-50.000	12	208	% 19,54	2
10.001-20.000	24	229	% 20,25	1
5.001-10.000	27	296	% 25,68	2
1.001-5.000	81	358	% 30,83	2
<1.001	99	300	% 22,88	1
EAE BATEZ BESTE	249	271	% 23,02	2

(*) Ekitaldi kopurua

EAEren batez besteko erabilitako zorra biztanleko 271 eurorena da. 24 udal daude 2013/12/31n batez bestekoaren zorra baino nabarmen handiagoa dutenak (820 eta 2.458 euro bitartean biztanleko).

79 udalek ez dute erabilitako zorpetzerik 13/12/31n eta horietatik 41, 1.000 biztanletik beherako biztanleria geruzan daude.

Zorra itzultzeko gutxienerako epeak adierazten du zorra zenbat ekitalditan amortizatu daitekeen, egungo sarrera eta gastu arrunten mailarekin. Ratio honen banako azterketan, 13 udaletan zorra itzultzeko gutxienerako epea 5 urtetik gorakoa da.

EAEko udalen batez besteko zorpetzea honakoa da:

GERUZA	Euroak milakotan	
	UDAL KOPURUA	13/12/31-N ERABILITAKO ZORPETZEA
ARABA		
>50.000	1	113.363
20.001-50.000	-	-
10.001-20.000	2	1.451
5.001-10.000	-	-
1.001-5.000	19	14.947
<1.001	29	2.598
ARABA GUZTIRA	51	132.359
BIZKAIA		
>50.000	3	38.959
20.001-50.000	8	38.751
10.001-20.000	9	22.891
5.001-10.000	12	19.646
1.001-5.000	40	28.703
<1.001	39	5.386
BIZKAIA GUZTIRA	111	154.336
GIPUZKOA		
>50.000	2	142.003
20.001-50.000	4	42.063
10.001-20.000	13	56.467
5.001-10.000	15	37.268
1.001-5.000	22	22.053
<1.001	31	5.864
GIPUZKOA GUZTIRA	87	305.718
EAE		
>50.000	6	294.325
20.001-50.000	12	80.814
10.001-20.000	24	80.809
5.001-10.000	27	56.914
1.001-5.000	81	65.703
<1.001	99	13.848
EAE GUZTIRA	249	592.413



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

EAEko Udalek foru aldundiei itunpeko zergetan udal partaidetzagatiko likidazio negatiboen kontzeptuan guztira 69 milioi euro dituzte itzultzeko. Horietatik 58 milioi euro Arabako udalerriei dagozkie, 5 milioi Bizkaikoei eta 6 milioi euro Gipuzkoakoei.

Diru-sarrera errepikarien eta egiturazko gastuen bilakaera

ESTRATO	UDAL KOPURUA	DIRU-SAR. ERREPIKARIEN BILAKAERA	EGITURAZKO GASTUEN BILAKAERA
ARABA			
>50.000.....	1	(% 5,65)	% 6,39
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 8,25	% 3,56
5.001-10.000.....	-	-	-
1.001-5.000.....	19	(% 9,06)	(% 2,50)
<1.001.....	29	(% 24,38)	(% 16,17)
ARABA BATEZ BESTE	51	(% 5,82)	% 4,36
BIZKAIA			
>50.000.....	3	(% 9,37)	(% 0,21)
20.001-50.000.....	8	(% 7,13)	% 0,98
10.001-20.000.....	9	(% 11,21)	% 0,25
5.001-10.000.....	12	(% 1,12)	(% 2,08)
1.001-5.000.....	40	(% 12,83)	(% 4,83)
<1.001.....	39	(% 23,31)	(% 4,82)
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	(% 9,16)	(% 0,51)
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	(% 9,04)	% 1,79
20.001-50.000.....	4	% 1,24	% 4,57
10.001-20.000.....	13	(% 4,51)	(% 0,75)
5.001-10.000.....	15	(% 3,69)	% 1,00
1.001-5.000.....	22	% 3,30	% 4,13
<1.001.....	31	(% 5,85)	% 6,51
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	(% 4,87)	% 1,64
EAE			
>50.000.....	6	(% 8,40)	% 1,94
20.001-50.000.....	12	(% 4,73)	% 1,96
10.001-20.000.....	24	(% 5,87)	(% 0,02)
5.001-10.000.....	27	(% 2,55)	(% 0,39)
1.001-5.000.....	81	(% 8,29)	(% 2,27)
<1.001.....	99	(% 18,93)	(% 5,19)
EAE BATEZ BESTE	249	(% 7,24)	% 0,96



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

III.1.2.1 Sarreren aurrekontukoa

GERUZA	UDAL KOP.	SARR.AURREK. EGIKAR.	GAUZAT. KOBTRAN.	KOBRANT. B-BEST.EPEA (*)	AUTONOMIA FISKALA	DIRU-LAG.eta TRANSF. ARR. MENP.
ARABA						
>50.000	1	% 88,35	% 85,80	74	% 42,37	% 53,54
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 90,64	% 89,74	59	% 42,84	% 53,76
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 84,52	% 84,70	59	% 40,54	% 47,30
<1.001	29	% 75,07	% 82,91	49	% 43,72	% 40,81
ARABA BATEZ BESTE	51	% 87,42	% 85,88	70	% 42,24	% 52,45
BIZKAIA						
>50.000	3	% 90,04	% 94,44	45	% 39,25	% 58,95
20.001-50.000	8	% 79,10	% 92,14	41	% 40,53	% 56,01
10.001-20.000	9	% 85,71	% 93,79	35	% 38,66	% 57,27
5.001-10.000	12	% 87,50	% 93,87	28	% 43,23	% 51,88
1.001-5.000	40	% 79,90	% 93,48	24	% 37,35	% 54,34
<1.001	39	% 90,07	% 90,14	17	% 23,44	% 66,77
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	% 85,71	% 93,62	39	% 39,22	% 57,29
GIPUZKOA						
>50.000	2	% 88,09	% 91,76	39	% 44,20	% 48,86
20.001-50.000	4	% 92,14	% 90,94	49	% 44,27	% 51,80
10.001-20.000	13	% 87,01	% 90,97	43	% 43,48	% 51,51
5.001-10.000	15	% 82,44	% 91,58	36	% 43,98	% 50,59
1.001-5.000	22	% 92,96	% 90,58	41	% 38,58	% 55,00
<1.001	31	% 92,02	% 86,74	27	% 35,02	% 55,68
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 87,89	% 91,22	41	% 43,42	% 50,75
EAE						
>50.000	6	% 89,09	% 91,55	51	% 41,34	% 55,07
20.001-50.000	12	% 82,72	% 91,77	43	% 41,69	% 54,66
10.001-20.000	24	% 86,86	% 91,84	42	% 41,76	% 53,68
5.001-10.000	27	% 84,59	% 92,59	33	% 43,65	% 51,17
1.001-5.000	81	% 83,85	% 90,81	37	% 38,36	% 53,05
<1.001	99	% 86,26	% 87,30	31	% 32,01	% 57,09
EAE BATEZ BESTE	249	% 86,72	% 91,54	45	% 41,15	% 54,37

(*) Egun kopurua

Autonomia fiskalak zerga zuzen, zehar zerga, tasa eta bestelako sarreren kontzeptuan aitortutako eskubideen zenbatekoa jasotzen du, sarrera guztien artean zati-banatu. Adierazle hau udalerraren gaitasun fiskalaren, ordenantzetan jasotako tarifen eta kudeaketaren eraginkortasunaren araberakoa da.



III.1.2.2 Gastuen aurrekontukoa

GERUZA	UDAL KOP.	GASTUEN AURR. EGIKARITZA	EGINDAKO ORDAINKETAK	ORDAINK. B-BEST. EPEA (*)
ARABA				
>50.000	1	% 87,76	% 90,90	59
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 82,67	% 93,01	38
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 82,03	% 87,14	59
<1.001	29	% 72,85	% 88,51	53
ARABA BATEZ BESTE	51	% 85,93	% 90,52	57
BIZKAIA				
>50.000	3	% 86,79	% 91,26	64
20.001-50.000	8	% 85,05	% 92,79	48
10.001-20.000	9	% 84,94	% 91,70	50
5.001-10.000	12	% 84,19	% 92,12	44
1.001-5.000	40	% 76,81	% 90,38	50
<1.001	39	% 86,21	% 90,65	57
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	% 84,95	% 91,65	56
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 85,56	% 90,48	51
20.001-50.000	4	% 88,35	% 92,99	52
10.001-20.000	13	% 83,74	% 90,02	62
5.001-10.000	15	% 80,30	% 92,36	47
1.001-5.000	22	% 90,49	% 92,60	43
<1.001	31	% 89,52	% 87,14	81
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 85,07	% 91,05	54
EAE				
>50.000	6	% 86,71	% 90,96	60
20.001-50.000	12	% 85,97	% 92,84	49
10.001-20.000	24	% 84,07	% 90,86	56
5.001-10.000	27	% 81,95	% 92,25	46
1.001-5.000	81	% 81,04	% 90,23	51
<1.001	99	% 83,25	% 89,05	63
EAE BATEZ BESTE	249	% 85,15	% 91,26	55

(*) Egun kopurua



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak/biztanleko

GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO GASTUA	GTU.PERTSON. INDIZEA	BIZTANLEKO INBERTSIOA	INBERTSIO AHALEGINA	EKITALDIKO FINANTZA ZAMA
ARABA						
>50.000	1	1.391	% 40,01	129	% 9,25	% 5,16
20.001-50.000	-	-	-	-	-	-
10.001-20.000	2	1.178	% 42,20	80	% 6,78	% 1,03
5.001-10.000	-	-	-	-	-	-
1.001-5.000	19	1.359	% 24,23	331	% 24,38	% 7,52
<1.001	29	1.336	% 25,11	447	% 33,44	% 3,27
ARABA BATEZ BESTE	51	1.366	% 37,97	161	% 11,82	% 4,98
BIZKAIA						
>50.000	3	1.178	% 30,56	101	% 8,55	% 1,39
20.001-50.000	8	1.168	% 34,81	121	% 10,36	% 7,79
10.001-20.000	9	1.089	% 31,88	108	% 9,96	% 5,99
5.001-10.000	12	1.132	% 27,62	124	% 10,96	% 7,12
1.001-5.000	40	1.276	% 26,13	199	% 15,61	% 7,48
<1.001	39	1.521	% 31,13	296	% 19,48	% 10,93
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	1.176	% 31,03	120	% 10,21	% 4,47
GIPUZKOA						
>50.000	2	1.367	% 29,15	159	% 11,61	% 7,93
20.001-50.000	4	1.172	% 33,15	104	% 8,89	% 8,06
10.001-20.000	13	1.220	% 30,70	141	% 11,60	% 6,69
5.001-10.000	15	1.261	% 28,98	153	% 12,12	% 7,29
1.001-5.000	22	1.230	% 29,59	234	% 19,02	% 9,21
<1.001	31	1.671	% 27,53	456	% 27,29	% 9,95
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	1.278	% 30,12	155	% 12,13	% 7,66
EAE						
>50.000	6	1.274	% 32,58	121	% 9,53	% 3,96
20.001-50.000	12	1.169	% 34,30	116	% 9,94	% 7,87
10.001-20.000	24	1.167	% 32,15	124	% 10,62	% 5,94
5.001-10.000	27	1.201	% 28,37	139	% 11,61	% 7,21
1.001-5.000	81	1.281	% 26,60	236	% 18,41	% 7,92
<1.001	99	1.508	% 28,57	383	% 25,39	% 8,77
EAE BATEZ BESTE	249	1.237	% 31,84	138	% 11,12	% 5,62

Ekitaldiko finantza zama ratioak interesak ordaintzeko eta zorra amortizatzen erabili behar den sarrera arrunten ehunekoak adierazten du.



III.1.2.3 Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinaren adierazleak

Aurrezki gordinak finantzazkoak ez diren gastu arruntei behin aurre egin ondoren erabilgarri geratzen den sarrera arrunten atala erakusten du.

Aurrezki garbiak finantza zamaren ordainketari aurre egin ondoren geratzen den aurrezki gordinaren atala islatzen du. Berezko baliabideekin inbertsioak finantzatzeko udalak duen gaitasuna erakusten du.

GERUZA	UDAL KOPURUA	BIZTANLEKO AURREZKI GORD.	Euroak/biztanleko	
			BIZTANLEKO AURREZKI GARBIA	BIZTANLEKO SUPERABITA/DEFIZITA.
ARABA				
>50.000	1	120	53	44,01
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	193	180	161,69
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	240	152	146,69
<1.001	29	262	226	145,12
ARABA BATEZ BESTE	51	147	83	70,85
BIZKAIA				
>50.000	3	137	120	76,60
20.001-50.000	8	69	(12)	94,33
10.001-20.000	9	110	50	47,45
5.001-10.000	12	192	112	(32,26)
1.001-5.000	40	201	112	119,57
<1.001	39	282	135	98,73
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	129	79	73,06
GIPUZKOA				
>50.000	2	167	66	106,23
20.001-50.000	4	194	103	57,28
10.001-20.000	13	214	135	97,74
5.001-10.000	15	191	105	95,50
1.001-5.000	22	228	126	118,58
<1.001	31	405	260	211,33
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	196	103	97,46
EAE				
>50.000	6	140	91	76,08
20.001-50.000	12	105	21	83,72
10.001-20.000	24	173	106	83,86
5.001-10.000	27	191	108	36,24
1.001-5.000	81	216	124	124,95
<1.001	99	310	195	142,74
EAE BATEZ BESTE	249	154	87	80,71



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrezki gordinak edozein modutara finantza zamaren pareko edo handiagoa izan behar du, izan ere, bestela udalak ezingo lioke zama honen ordainketari aurre egin eta ez luke inbertsioetarako auto-finantzaketarik izango. Honek guztiak esan nahi du 4 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak.

Aurrezki garbiak positiboa izan behar du, kapitalezko sarrerak ez daitezen gastu arruntak finantzatzeko erabil. Aztertutako ekitaldian, aurrezki gordin negatiboa erakusten duten 4 udalez gain 20 udaletan finantza zamak aurrezki gordina gainditzen du. Honek guztiak esan nahi du 24 udal daudela aurrezki garbi negatiboa erakusten dutenak. Aurrezki gordina negatiboa duten suposamendu horietan edota finantza zama hau baino handiagoa denetan zorpetzeko marjinarik batere ez dutela aintzat hartuta, 24 udal hauen autofinantzaketarako gaitasuna zerokoa da.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aitortutako eskubide garbiei dagokienez, batez besteko indizeak honako hauek dira:

GERUZA	UDAL KOPURUA	AURREZKI GORDIN. INDIZEA	AURREZKI GARB. INDIZEA	SARR.ARRUNTENG. GELDIKINA.
ARABA				
>50.000	1	% 9,15	% 3,99	% 3,18
20.001-50.000	-	-	-	-
10.001-20.000	2	% 15,12	% 14,09	% 29,19
5.001-10.000	-	-	-	-
1.001-5.000	19	% 20,56	% 13,03	% 30,25
<1.001	29	% 23,62	% 20,35	% 45,99
ARABA BATEZ BESTE	51	% 11,43	% 6,44	% 9,92
BIZKAIA				
>50.000	3	% 11,41	% 10,02	% 12,94
20.001-50.000	8	% 6,65	(%1,14)	% 16,59
10.001-20.000	9	% 10,90	% 4,91	% 20,54
5.001-10.000	12	% 17,18	% 10,06	% 34,22
1.001-5.000	40	% 16,89	% 9,42	% 20,59
<1.001	39	% 20,89	% 9,96	% 20,72
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	% 11,43	% 6,97	% 17,02
GIPUZKOA				
>50.000	2	% 13,16	% 5,23	% 9,86
20.001-50.000	4	% 17,06	% 9,00	% 11,17
10.001-20.000	13	% 18,00	% 11,30	% 28,70
5.001-10.000	15	% 16,12	% 8,83	% 18,70
1.001-5.000	22	% 20,51	% 11,31	% 19,23
<1.001	31	% 27,71	% 17,76	% 32,64
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 16,19	% 8,54	% 17,34
EAE				
>50.000	6	% 11,28	% 7,32	% 9,73
20.001-50.000	12	% 9,84	% 1,97	% 14,93
10.001-20.000	24	% 15,33	% 9,39	% 25,98
5.001-10.000	27	% 16,60	% 9,38	% 25,67
1.001-5.000	81	% 18,57	% 10,65	% 22,26
<1.001	99	% 23,63	% 14,86	% 30,49
EAE BATEZ BESTE	249	% 13,03	% 7,41	% 15,98

Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikinak aurreko ekitaldietan eskuratutako soberakinak erakusten ditu, datozen ekitaldietako aurrekontuen finantzaketa iturri izan daitezkeenak. Balio erlatiboetan, Geldikin horrek sarrera arrunt guztien gainean izan dezakeen pisua jasotzen du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aztertu ditugun entitateetatik 19 udalek, % 7,63 egiten dutenek, Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin negatiboa dute. Gastu Orokorretarako Diruzaintza Geldikin negatiboak erakusten du udalak bere ahalmenez gainera gastatu duela, hurrengo ekitaldietan zuzendu beharko den defizita sortuz, indarreko aurrekontuaren arautegian ezarritakoari jarraikiz. Hona hemen udal hauek biztanleria geruza eta Lurralde Historikoaren arabera sailkatuak:

GERUZA	UDAL KOP.	GERUZA GUZT. GAINEAN %
10.001-20.000	1	% 4,17
5.001-10.000	1	% 3,70
1.001-5.000	10	% 12,35
<1.001	7	% 7,07
EAE GUZTIRA	19	% 7,63
ARABA	1	% 1,96
BIZKAIA	15	% 13,51
GIPUZKOA	3	% 3,45



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GERUZA	UDAL KOPURUA	AURREK. EKARPENA DIRUZA. GELDIKINARI	ZALANTZ. KOBR. ZORDUNEN INDIZEA
ARABA			
>50.000.....	1	% 105,36	% 15,07
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 42,80	% 101,69
5.001-10.000.....	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 41,54	% 34,27
<1.001.....	29	% 28,30	% 34,75
ARABA BATEZ BESTE	51	% 55,31	% 24,65
BIZKAIA			
>50.000.....	3	% 49,46	% 108,46
20.001-50.000.....	8	% 55,03	% 72,30
10.001-20.000.....	9	% 22,79	% 73,61
5.001-10.000.....	12	(% 8,32)	% 106,14
1.001-5.000.....	40	% 48,63	% 41,31
<1.001.....	39	% 35,26	% 25,52
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	% 37,84	% 74,16
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 84,91	% 31,21
20.001-50.000.....	4	% 45,02	% 35,18
10.001-20.000.....	13	% 28,61	% 32,60
5.001-10.000.....	15	% 43,08	% 40,72
1.001-5.000.....	22	% 55,51	% 22,66
<1.001.....	31	% 44,27	% 2,75
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 46,52	% 32,19
EAE			
>50.000.....	6	% 62,96	% 41,85
20.001-50.000.....	12	% 52,74	% 60,93
10.001-20.000.....	24	% 28,52	% 50,37
5.001-10.000.....	27	% 12,13	% 62,29
1.001-5.000.....	81	% 48,12	% 37,38
<1.001.....	99	% 35,62	% 19,74
EAE BATEZ BESTE	249	% 42,73	% 46,56



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.2.4 Ekitaldi itxietako aurrekontuen adierazleak

GERUZA	UDAL KOPURUA	EKITALDI ITXIETAN GAUZATUT. KOBRANTZAK	EKITALDI ITXIETAN GAUZATUT. ORDAINK.
ARABA			
>50.000.....	1	% 55,71	% 88,80
20.001-50.000.....	-	-	-
10.001-20.000.....	2	% 43,48	% 84,07
5.001-10.000.....	-	-	-
1.001-5.000.....	19	% 57,76	% 86,49
<1.001.....	29	% 66,86	% 74,29
ARABA BATEZ BESTE	51	% 54,80	% 86,75
BIZKAIA			
>50.000.....	3	% 44,67	% 99,78
20.001-50.000.....	8	% 26,28	% 98,88
10.001-20.000.....	9	% 36,86	% 93,78
5.001-10.000.....	12	% 37,79	% 87,68
1.001-5.000.....	40	% 39,38	% 87,70
<1.001.....	39	% 61,36	% 90,05
BIZKAIA BATEZ BESTE	111	% 37,63	% 95,71
GIPUZKOA			
>50.000.....	2	% 44,56	% 99,56
20.001-50.000.....	4	% 57,25	% 99,96
10.001-20.000.....	13	% 58,41	% 97,55
5.001-10.000.....	15	% 48,55	% 82,87
1.001-5.000.....	22	% 73,88	% 92,33
<1.001.....	31	% 86,74	% 94,17
GIPUZKOA BATEZ BESTE	87	% 51,85	% 95,86
EAE			
>50.000.....	6	% 48,47	% 97,12
20.001-50.000.....	12	% 32,71	% 99,13
10.001-20.000.....	24	% 48,16	% 95,06
5.001-10.000.....	27	% 42,97	% 85,28
1.001-5.000.....	81	% 48,36	% 88,09
<1.001.....	99	% 69,17	% 85,98
EAE BATEZ BESTE	249	% 45,94	% 94,32

III.2 UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN ADIERAZLEAK 2013/12/31-N

Udalaz gaindiko adierazleak kalkulatzeko aztergai izan ditugun 58 udalen aurrekontu-likidazioei dagozkien datuak erabili dira eta informazioa aztertu da. Adierazleak eta eskuratutako likidazioen laburpenak, banaka jaso ditugu ondoko lotunean:

- <http://www.tvcp.eu/informes.asp>

III.2.1 FINANTZA ADIERAZLEAK

Berehalako likidezia eta epe laburreko kaudimena eta likidezia

Hona hemen udalaz gaindiko entitateen batez besteko baloreak, jarduera motaren arabera:

JARDUERA	UDAL KOPURUA	BEREHALAKO LIKIDEZIA	KAUDIMENA EPE LAB.
1. Ura eta saneamendua	% 321,82	% 135,42	% 421,40
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	% 47,25	% 49,74	% 133,84
3. Hiriko hondakin solidoak.....	% 79,88	% 77,85	% 197,29
4. Gizarte Ongizatea	% 228,32	% 227,99	% 333,33
5. Arabako Kuadrilla	% 117,92	% 120,49	% 236,72
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 329,26	% 330,74	% 361,21
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 154,78	% 103,26	% 280,00
8. Suteak itzaltzea.....	% 48,69	% 48,85	% 146,47
9. Garraioak.....	% 120,70	% 34,25	% 160,40
GUZTIRA	% 170,74	% 90,36	% 260,35

Zorpetzea

JARDUERA	Euroak milakotan			
	ERABILITAKO ZORPETZEA	FINANTZA ZAMA	SARR.ARR.arab. ZORPETZEA.	ZORRA AMORT. GUTXIENENKO EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua	87.655	8.754	% 54,80	2
2. Udal zerbitzuen kudeaketa.....	584	139	% 1,53	-
3. Hiriko hondakin solidoak.....	1.973	604	% 3,29	-
4. Gizarte Ongizatea	-	15	-	-
5. Arabako Kuadrilla	-	2	-	-
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	-	-	-	-
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	5	2	% 1,20	-
8. Suteak itzaltzea.....	-	-	-	-
9. Garraioak	497.187	51.212	% 347,21	12
GUZTIRA	587.404	60.728	% 134,51	6

(*) Ekitaldi kopurua

Zorpetzeari buruzko informazioa bihurritu egiten da garraio arloak duen berariazko pisua dela eta; alor hori Bizkaiko Garraio Partzuergoak osatzen du eta udalaz gaindiko zorpetzearen % 85 egiten du. Lehenagoko txostenetan azaldutako moduan, erakunde honen bideragarritasuna Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak azpiegiturretan egindako



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

inbertsioen finantzaketak sortutako finantza zamari aurre egin ahal izateko egiten dituzten ekarpenen baitakoa dela adierazi behar dugu. 2 entitatetan zorra itzultzeko gutxieneko epea 6 urtetik gorakoa da.

Edozein modutan, udalaz gaindiko entitateen finantza egitura ez da udalenaren antzekoa eta, beraz, finantza egoera kalifikatzeko erabilitako ratioak berberak izan arren, ondorioak eta, batez ere, neurri zuzentzaileak, ezin dira berdinak izan. Orokorrean, udalaz gaindiko entitateek finantziarioaren zati handi bat lortzen dute berau eratzen duten udalek hala gastu arruntetarako, nola inbertsioetarako egiten dizkieten ekarpenen bidez. Hortaz, emaitza arrunt negatiboek adierazten dute entitatea osatzen duten udalen ekarpenak ez direla aski eta horrek zerikusia izan dezake emandako zerbitzuen tasa eta prezio publikoak kalkulatzeko egin diren hutsekin edo zerbitzu horiek gestionatzean egin diren okerrekin.

Diru-sarrera erreplikarien eta egiturazko gastuen bilakaera

JARDUERA	DIRU-SAR. ERREPIKARIEN BILAKAERA	EGITURAZKO GASTUEN BILAKAERA
1. Ura eta saneamendua	(% 1,97)	% 3,38
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	(% 2,81)	% 10,64
3. Hiriko hondakin solidoak	(% 1,98)	% 18,25
4. Gizarte Ongizatea	(% 1,28)	% 4,27
5. Arabako Kuadrilla	(% 99,45)	(% 99,48)
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 24,48	% 25,27
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	(% 45,45)	% 19,01
8. Suteak itzaltzea	% 5,97	% 5,42
9. Garraioak.....	(% 7,61)	(% 3,48)
GUZTIRA	(% 81,97)	(%84,77)



III.2.2 AURREKONTUAREN ADIERAZLEAK

III.2.2.1 Gastu aurrekontuaren adierazleak

Hona hemen aurrekontu gastuari buruzko adierazleak milako eurotan emanak eta udalaz gaindiko entitateek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:

JARDUERA	GASTU AURREK. EGIKARITZA	ORDAINKETAK EGITEA	ORDAINKETARAKO BATEZ-B. EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua	% 74,67	% 89,08	52
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	% 83,40	% 85,74	72
3. Hiriko hondakin solidoak	% 87,87	% 86,05	72
4. Gizarte Ongizatea	% 92,70	% 93,49	41
5. Arabako Kuadrilla	% 89,42	% 90,06	48
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	% 94,75	% 98,53	38
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 79,66	% 83,30	89
8. Suteak itzaltzea	% 94,92	% 92,54	36
9. Garraioak.....	% 86,70	% 92,50	30
GUZTIRA	% 82,12	% 89,70	49

(*) Egun kopurua

JARDUERA	Euroak milakotan				
	GASTUA 2012	GASTUA 2013	LANGILE GAST. INDIZEA	INBERTSIOA	INBERTSIO AHALEGINA
1. Ura eta saneamendua	203.992	196.162	% 19,44	59.271	% 30,22
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	40.106	39.433	% 20,22	3.658	% 9,28
3. Hiri hondakin solidoak	61.716	88.225	% 6,49	31.527	% 35,73
4. Gizarte Ongizatea	18.769	18.978	% 41,87	185	% 0,97
5. Arabako Kuadrilla	10.553	10.771	% 35,79	172	% 1,60
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	2.384	2.566	% 84,46	7	% 0,29
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	762	509	% 41,25	125	% 24,56
8. Suteak itzaltzea	2.855	2.999	% 61,77	15	% 0,49
9. Garraioak	191.533	177.940	% 1,13	28.615	% 16,08
GUZTIRA	532.670	537.583	% 13,78	123.575	% 22,99

2013an guztizko gastuak gora egin du aurreko urtearekiko, hiri hondakin solidoen jardueran diharduten entitateetan gastuak nabarmen egin duelako gora (% 42,95), batik bat, inbertsioan gastuak gora egin duelako. Alabaina, ur eta saneamenduan eta garraioan diharduten entitateetan, inbertsioan egindako gastuan behera egiteak gastua, hurrenez hurren, % 3,84 eta % 7,10 beheratu du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.2.2.2 Sarrerren aurrekontuaren adierazleak

Hona hemen aurrekontu sarrerei buruzko adierazleak milako eurotan emanak eta udalaz gaindiko entitateek garatzen duten jardueraren arabera sailkatuak:


JARDUERA	SARR. AURREK. EGIKARITZA	KOBRANTZAK EGITEA	KOBRANTZARAKO BATEZ-B. EPEA (*)
1. Ura eta saneamendua	% 75,79	% 70,73	104
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	% 85,04	% 84,88	78
3. Hiriko hondakin solidoak	% 72,86	% 82,35	92
4. Gizarte Ongizatea	% 90,58	% 88,36	43
5. Arabako Kuadrilla	% 92,58	% 80,25	36
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.....	% 97,67	% 96,93	2
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	% 78,93	% 72,93	30
8. Suteak itzaltzea	% 96,49	% 90,64	59
9. Garraioak.....	% 80,43	% 97,00	22
GUZTIRA	% 78,43	% 83,04	75

(*) Egun kopurua

JARDUERA	Euroak milakotan				
	SARRERAK 2012	SARRERAK 2013	JARDUERAREN SARRERAK	DIRU-LAG. SARRERAK	ZORPETZE SARRERAK
1. Ura eta saneamendua	212.343	199.128	152.517	40.723	2.589
2. Udal zerbitzuen kudeaketa	41.306	40.207	11.040	28.490	0
3. Hiriko hondakin solidoak	63.600	73.154	16.444	52.630	0
4. Gizarte Ongizatea	19.082	18.571	3.311	14.976	0
5. Arabako Kuadrilla	10.744	11.152	1.174	9.936	0
6. Sust. eta iraks., euskara eta lan. prest.	2.568	2.646	354	2.252	0
7. Partzoneriak eta baso ustiapena.....	759	532	225	307	0
8. Suteak itzaltzea	2.878	3.049	19	3.030	0
9. Garraioak.....	171.895	165.059	83.138	61.761	20.000
GUZTIRA	525.175	513.498	268.222	214.105	22.589

Udalaz gaindiko entitateen sarreraren egitura, jardueraren arabera sailkatua, honako grafikoan islatzen da:

UDALAZ GAINDIKO ENTITATEEN FINANTZAKETA



JARDUERA MOTA

Udalaz gaindiko entitateen % 38k euren aurrekontuaren % 80 baino gehiago berau osatzen duten udaletatik edota bestelako erakundeetatik jasotako diru-laguntza arruntetatik datozen sarreraren bidez finantzatzen dute.

Nolanahi ere, jarduketara esparruak eta eskaintako zerbitzuak aztertuz gero, ikusten da erakundeek fakturatu beharko lituzketen zerbitzuak diru laguntza arruntaren bidezko sarrera modura erregistratzen direla; ordea, zerbitzu horien sarrerak 3. kapituluan fakturatu eta erregistratu beharko lirateke.

Uraren hornidura eta saneamendura emanak dauden entitateek euren aurrekontuaren atalik handiena jarduerak berak eragindako sarrerekin finantzatzen dute.

III.2.2.3 Aurrekontu emaitzaren eta diruzaintza geldikinarekin adierazleak

JARDUERA	Euroak milakotan		
	AURREZKI GORDINA	AURREZKI GARBI	BIZTANLEKO SUPERAB./DEFIZITA
